Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

403

Abuztuak 15, 2021

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 Zuregain
5 Migratzaileak arriskuan
6 Bidasoa Folk
7 Uda Irunen
8 Kirolak: Igor Emery
9 Kirolak: Irundarrak Olinpiadetan
10 Oiassotik Irunera
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Uxue Sansiñena
14 iGazte
15 Agenda

Janeth Carreño
Koordinatzailea
667 94 04 05

caser cuidados

INFORMA ZAITEZ!

Etxez etxeko laguntza

EDOZEIN EGOERATAN:
- Menpekotasunean
- Ahalmen urritasunean
- Konbaleszentzia edo gaixotasunean

EDOZEIN DENBORAZ
- Aldi baterakoa
- Iraunkorra

EDONON LAGUNTZEN
- Etxean edo etxetik kanpo
- Ospitalean
-Egoitzan
-Enpresan

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1921eko abuztuaren 21ean argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak orain dela mende bat Irunen albiste izan ziren gertaerak biltzen ditu. Aldizkariko lehen artikuluak, ipuin baten bidez, bi lagunen adiskidetasunaren narriadura kontatzen du, bata bestearen ahizpa ezkonduarekin maitemindu ondoren. "Nuestro troley" titulua duen idatzian Irun Hondarribiarekin lotzen duen tranbian erabiltzaileen erosotasuna areagotzeko zerbitzuan hobetu beharreko kontuak zerrendatzen dira. Orrialdea amaitu aurretik, Prudencio de Beraketak sinatutako artikuluan urtero uda garaian argitaratu ohi zen gidaliburuan hiriaz esaten denari erreparatzen dio idazleak. Izan ere, Beraketaren iritziz gaurkotu gabeko informazio asko dago Irun hiriari dagokion atalean.

Kirol kronikan "Real Sporting de Gijón" taldeak sinatutako gutuna argitaratzen da, talde horren eta Real Union taldeen arteko partiduan gertatutako gaizki ulertuak argitzeko. Horrekin batera, Gipuzkoako Futbol Federazioaren hurrengo bilkuran hartuko diren erabakiak aurreratzen dira gutunaren ondoren argitaratzen den albiste labur batean. Berako jaiekin loturik, aldiz, jaietako egitarauaren barnean urte batetik bestera antolatutako ekintza errepikakorrak aipatzen dira zinegotzi arduradunaren alferkeria salatzeko. Bi pertsonen arteko elkarrizketa bezala aurkezten den hurrengo artikuluan semealaben heziketaz eta etorkizuneko jarreraz egiten da gogoeta. Bigarren orrialdearen amaieran azken udal bilkurako erabaki esanguratsuenak errepasatzen dira "Notas Municipales" atalean.

Hirugarren orrialdearen hasieran, "Una explicación necesaria y oportuna" titulua duen idatzian El Bidasoa aldizkariaren lantaldean kazetari bat beste batekin ordezkatu ostean jasotako kexak argitu nahi dira. Jarraian, Tuberkulosiaren aurkako kontsultategiari eta haurrentzako udalekuei laguntzeko diru-ekarpenak egin dituzten pertsonen izenak irakur daitezke. Azkenik, "Ecos de sociedad" atalean hiriko familia ezagun eta aberatsekin loturiko azken gertakari esanguratsuen laburpena argitaratzen da, eta ostean, "Noticias" atalean bildutako berri laburrekin amaitzen da aldizkaria.

ARGAZKIAK:

G38491: Merkatuaren plaza, gaur egun Genaro Echeandia izena duena.

G48906: Behobiako zubi zaharra, polizia-postua ikus daiteke eta, atzealdean, Pausu (XX. mendearen hasiera, 1911 baino lehen).

G57816: Irungo aldirietako baserriak (XIX. mendearen amaiera edo XX. mendearen hasiera).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

AECC Bidasoak aurreko urtean baino bi aldiz senide eta paziente gehiago artatu ditu 2020an

AECC Bidasoko bulegoak 2020an zehar aurreko urtean baino bi aldiz senide eta paziente gehiago artatu ditu. Iaz, pandemia hasi eta etxez etxeko eta ospitaleetako boluntario lana geldituta egon zen arren, minbizidun gaixoei eta berauen senideei arreta emateko bulegoak aurreko urteko zifra bikoiztea lortu du.

Irungo Udaleko Gizarte Ongizateko ordezkari David Nuño Minbiziaren kontrako Espainiako Elkartearen Bidasoaldeko ordezkaritzako Oihana Palacín gizarte langilearekin eta Lara Francorekin, bulegoan lan egiten duten bi psikologietako batekin, bildu da. Bileran joan den urteko datuak errepasatu dituzte eta 11.400 kontsulta baino gehiago artatu zirela jakinarazi da. David Nuñok nabarmendu duenez, "AECCren lana inoiz baino ezinbestekoagoa da". Gizarte Ongizateko ordezkariak azaldu duenez ez da ahaztu behar Covid-19az haratago, badirela presente dauden beste errealitate batzuk, hala nola, minbizia, eta gaixoak eta berauen senideak konpainia eta laguntza beharrean sentiarazten dituena. Covid-19aren pandemiak AECC Bidasoko konpainia saioak online egitea eta ohiko terapiatik kanpoko harremanak sustatzeko jarduera ludiko eta fisikoak antolatzea eragin du.

Elkartearen lan ildo nagusiak

Batetik, minbiziari aurrea hartzen laguntzeko ohitura osasungarriak sustatzeko programa eta jarduerak aurrera eramaten ditu elkarteak Amaia Izetarekin. Era berean, medikuntza eta erizaintza gaiei buruzko orientabidea ematen du, zalantzak argitzen laguntzen du, tratamenduaren albo ondorioei aurre egiteko jarraibide medikoak ematen ditu, etab. Jakina, arreta psikologikoa ere eskaintzen du, senideen arteko komunikazioa hobetzeko eta gaixotasunak sortzen duen egonezin emozionalari aurre egiteko, baita gizarte prestazio eta baliabideei buruzko informazioa, gaixotasunaren ondorioz lanean izan daitezkeen zailtasunei aurre egiteko laguntza, etab.

Bestetik, AECCren ordezkaritza guztiak ingurune klinikoko ikerketa sustatzen saiatzen dira, eta, horretarako, beharrezkoa da ikertzaile espainiarrek nazioarteko partzuergoetan parte har dezaten bultzatzea, talentua sustatzea eta ikertzaileen jardunbideari egonkortasuna ematea. Alde horretatik, ezohiko minbiziak ikertzeko laguntza lerro berri bat sortu da. Azken batean, bulegoak ikerketan laguntzeko programak eramaten ditu aurrera: talentuentzako laguntzak, zentroen programa, globalizaziorako laguntzak... Joan den urtean, ikerketan inbertitzeko 400.000 euro bildu ziren eskualdean.

Irailaren 13tik 17ra bitarteko astea Minbiziaren kontrako Astea izango da, eta Bidasoan data horren inguruko ekintzak antolatuko dira, bulegoak egiten dituen jarduera eta zerbitzuak sustatzen jarraitzeko. Bidasoako elkarteak gogoratu du 900 100 036 doako informazio telefono zenbakian asteko 7 egunetan 24 orduz zerbitzua eskaintzen dela.

Irungo Udalak hiriko merkataritzaren digitalizazioa sustatzeko laguntzak emango ditu

Irun Aurrera 2021 Planaren eta bertako merkataritza eta kontsumoa sustatzeko pizgarrien barruan, merkataritza digitalizatzeko 120.000 euroko kontu sail bat onartu da. Merkataritza digitalizatzen laguntzeko politikari jarraikiz, saltokiei TicketBAI Gipuzkoako Foru Aldundiaren fakturazio elektronikoko sistemara egokitzeko gastuak ordaintzeko laguntzak emango dira.

Hasiera batean, laguntza hauek emateko aurrekontu kreditua 60.000 eurokoa zen, izan ere, soilik merkataritzari eta ostalaritzari zuzendutako laguntzak izango ziren. Beste zenbait sektorek egindako eskakizunak jaso ostean, kreditua handitu eta 120.000 euroko aurrekontua jarriko da. Era honetan, laguntza hiriko ekonomiaren barruko beste epigrafe batzuei zabalduko zaie: ile apaindegiak, taxiak, ostatu emateko zerbitzuak, irakaskuntza ez-arautua, kirol instalazioak,... Gainera, laguntzak eskatzeko epeak luzatu dira, laguntzak urriaren 31ra arte eskatu ahalko baitira eta irailaren 30era bitartean egindako gastuak diruz lagunduko dira.

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren egoitza elektronikoaren bidez eskatu beharko dira laguntzak. Diru-laguntzak espezifikoak dira TicketBAI sistema berrira egokitutako salmenta terminalak eta softwareak erosteko aukera emango dutenak. Justifikatzen den gastuaren %80ra arte diruz lagunduko da eta gehienez 1.500 euro izango dira. Gainera, beste 1.000 € emango dira IFZ beraren peko establezimendu gehigarri bakoitzeko, % 80ko mugaren barruan betiere.

José Antonio Santano alkateak nabarmendu duenez, honelako laguntzak oso baliagarriak dira. "2020an jarri zen martxan Irun Aurrera plana, COVID-19aren ondorioz alarma egoera deklaratu eta aste batzuetara, eta, ordutik, okerren pasatzen ari zirenei laguntzea izan da Udalaren helburua. Kasu honetan, udalak gastu baten ordainketan lagundu nahi du.

Zer da TicketBAI?

Fakturazio sistema berri bat da, hiru foru ogasunen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko proiektu komun baten emaitza, 2021etik aurrera nahitaezkoa izango dena, eta legezko betebehar eta betebehar tekniko batzuk ezartzea du helburu. Indarrean hasten denetik, jarduera ekonomikoetan aritzen diren pertsona fisiko eta juridiko guztiek sistemaren eskakizun teknikoak betetzen dituen fakturazio sistema bat erabili beharko dute, jarduera ekonomikoen diru sarrerak kontrolatzeko eta zergadunei beren betebehar fiskalak betetzen laguntzeko. Dena den, diru laguntza honen inguruko informazio guztia Irungo Udalaren webgunean kontsultatu daiteke.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Zuregainek erizaintza-zerbitzuak etxera eta erabiltzaileen erosotasunera hurbiltzen ditu

Argazkia: Estudio Gover

Zuregain pertsonen ongizatean eta osasunaren zaintzan jarduten duen enpresa da. Erizaintzako zainketak eta teknikak eskaintzen dituzte etxez etxe, zerbitzu guztiz pertsonalizatuarekin osatuz. Pandemiarekin, mota horretako zerbitzuen eskariak nabarmen egin du gora. Oinatz Igos, Jon Aragón eta Iñigo Vicente dira sortu berri den enpresa honen bultzatzaileak.

Zein da Zuregainen helburua?
Zuregain erizaintzako eta etxez etxeko osasun-zerbitzuetako enpresa bat da, eta zaintzak pazienteengana hurbildu nahi ditu. Bizi dugun egoera honetan, ikusi dugu pertsona askorentzat arazo bat dela etxean zenbait zerbitzu jaso ezin izatea. Guk jende askok duen behar hori asetzea bilatzen dugu. Bezero partikularraz gain, enpresentzat ere lan egiten dugu. Enpresetara hurbiltzen gara eta osasun arloko hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu, hori guztia etxez etxe.

Enpresaren izenak berak adierazten du zer harreman izan nahiko zenuketen zuen pazienteekin?
Izena bat-batean otu zitzaigun. Ideia hasieratik garbi dugu, hau da, argi eta garbi genekien gure pazienteak/bezeroak zaindu nahi genituela eta horien eskaeren zain egon nahi genuela. Etxez etxe lan egiten dugu, ez daukagu kontsultarik eta gure bezeroen etxeetara joaten gara eskatzen digutenean.

Askotariko zerbitzuak eskaintzen dituzue?
Hori da, dena ondo azalduta daukagu gure webgunean. Covid-19 detektatzeko probak egiten ditugu, hau da, antigenoak edo PCRak, analitikak, sendaketak, ospitalean edo etxean lagunduz. Etorkizunean fisioterapia, podologia eta beste osasun-zerbitzu batzuk ere kudeatu ahal izatea gustatuko litzaiguke.

Zuen zerbitzuen abantaila handienetako bat erosotasuna da?
Hori da, azkenean horrek erakartzen ditu guregana, ospitale batera joan beharrik ez izatean. Horrela, etxean lasai egoten dira eta, behin teknika eginda, beren errutinarekin jarrai dezakete.

Nolakoak izan dira enpresaren hastapenak?
Zaila izan da, hasierak beti baitira zalantzazkoak eta zailak. Egia da gaur egun daukagun arazo handi honekin, pandemiarekin, osasun-jarduera guztia monopolizatu dela, bai ospitale publikoetan, bai gure kasuan. Dena Covid-19arekin lotuta dago. PCR proba asko egiten ari gara, antigenoak... beraz, eskari guztiak gai horrekin lotuta daude.

Horregatik guztiagatik, pazienteekin duzuen harremana oso estua da?
Bai, hori da, gu etxera edo enpresa batera joateak familia edo lantalde osoa ezagutzea eragiten du. Hau ez da ospitale batean gertatzen. Norbaiten etxean sartzean, erabat barneratzen zara haren giroan. Gure bezeroek gu ezagutzea eta gurekin konfiantza izatea gaur egun ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Zerbitzu horiek eskatzen dituen jendeak ezaugarri jakin batzuk ditu?
Gure profila oso zabala da eta hemendik aurrera ere horrela izango dela uste dugu. Gure zerbitzuek etengabeko zaintza behar duten pertsonentzako balio dute, hau da, iraupen luzeko arreta behar dutenak, baina unean-unean bakarrik behar gaituzten pazienteekin ere egiten dugu lan. Kasu zehatz horietan, bizkarreko arazoak dituen eta astebetez analgesia behar duen jende tipikoa izaten da. Beraz, oso profil desberdina lantzen dugu.

Gaur egun, zeintzuk dira gehien eskatzen diren zerbitzuak?
Gaur egun gehien eskatzen digutena Covid-19a atzemateko probak dira. Beste gauza batzuk ere lantzen ditugu, hala nola odol-erauzketak eta injektagarri bat edo botikak ematea ere eskatzen digute.

Osasunaren alorreko profesionalak zaretenez, nabaritu duzue jendea gehiago arduratzen dela bere osasunaz?
Pandemiaren ondorioz, gehiago baloratu da zaintza etxean jaso ahal izatea, modu indibidualizatuan. Horrek garrantzi handia hartu du denbora gutxian.

Zein da zuen zerbitzuak eskatzeko funtzionamendua?
Horretarako, Zuregain izeneko webgune propioa dugu. Bertan, gure zerbitzu guztiak azaltzeaz gain, gure kontaktuak aurkitu ahal izango ditugu interesdunek, telefonoz edo WhatsApp bidez gurekin harremanetan jartzeko. Enpresaren posta ere aurkituko dute, edozein zalantza argitzeko. Hitzordu bat zehaztu ondoren, gure zerbitzuak eskatzen dituen etxera joango gara, eta eskatutako lana egin ondoren amaitzen da gure zerbitzua.

Nola gustatuko litzaizueke etorkizunean zuen zerbitzuak zabaltzea?
Gaur egun, eskaintzen ditugun zerbitzu gehienak erizaintza-arlokoak dira. Baina etorkizunean, pazientea oso globala den ideiarekin haztea gustatuko litzaiguke, behar asko bil baititzake. Kooperatiba bat gara, eta fisioterapia, terapia okupazionala, psikologia... askotariko zerbitzuak sartu nahi ditugu gure organigraman. Beraz, mota askotako zerbitzuak eskaini nahi ditugu.

Erizaintzaren etorkizuna etxeko arretan dagoela uste duzue?
Duela urte askotatik, etxez etxeko arreta balioesten ari da. Azkenean, gauza guztietan bezala, sektore publikoak bere baliabide-mugak ditu. Guk ez dugu horrekin lehiatu nahi eta ezin dugu, ez da gure ideia. Zerbitzu horien orbitatik kanpo geratzen diren paziente horientzeko laguntza izan nahi dugu. Ez da inoiz berdin-berdina izango, baina oso antzekoa izan daiteke.

ESTUDIO GOVER FOTOGRAFIA
Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100,2°
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Bidasoa ibaiak migratzaileen bizitza irensten jarrai ez dezan

Zubiak bi ertz edo mutur hurbildu eta lotzeko helburuarekin eraikitzen dira. Bidasoa ibaiaren ibilguan zehar altxatzen diren zubiek bi herrialde elkartzeko balio dute. Errealitate latzenak, ordea, agerian utzi du Santiago eta Behobiako zubietan modu iraunkorrean kokatutako kontrol arrazistek pertsonen zirkulazio askatasunerako lagungarri izan ordez, migratzaileak bizitza arriskatzera behartzen dituztela mugaren beste aldean bizitza hobe bat lortu nahi badute.

Beste migratzaile bat hil da Irun eta Hendaia arteko muga Bidasoa ibaian barrena igerian zeharkatzeko saiakeran. Ertzaintzak baieztatu duenez ezbeharra abuztuaren 8ko goizeko hamarrak laurden gutxi inguruan gertatu zen bi pertsona Irundik Biriatura heltzeko ahaleginean Bidasoa ibaira sartu zirenean. Inguruan bizi den lekuko batek bi gizon ibaian murgiltzen ikusi zituen eta, korrontearengatik ibaia gurutzatzeko arazoak zituztela ikusita, uretara jauzi egin zuen bi gizonei lehorrera irteten laguntzeko. Baina korrontearen indarra zela eta, lehorrera itzuli behar izan zuen, ibaiak irentsi aurretik. Ibaia gurutzatzen saiatu zen gizonetako bat uretan sartu eta berehala hondoratu zela ikusi ahal izan zuen lekukoak. Beste gizonak, ordea, lortu zuen lehorrera iristea.

SOS-Deiak 112 Zerbitzuak gertatutakoaren berri izan zuenean, Ertzaintzaren helikoptero bat eta urpekariak, Hondarribiko Gurutze Gorriko eta suhiltzaileetako urpekariak, Ertzaintzako Zaintza eta Erreskate Unitateko dotazio bat eta herritarren segurtasuna babesteko patruilak gerturatu ziren bertara, azken hauek ibaiertza miatzera. Handik gutxira jakinarazi zuten desagertutako gizona ibaian aurkitu zutela. Suhiltzaileek gorpua uretatik atera zuten, eta bihotz-biriketako geldialdia zuela konturatu zirenean, suspertzen saiatu ziren, baina handik minutu batzuetara Osakidetzaren anbulantziako medikuak gizonaren heriotza baieztatu zuen.

Batasuna zoritxarraren aurrean
Azken gertakari horren harira, Irungo Harrera Sareak elkarretaratzea deitu zuen abuztuaren 9rako. Ehunka pertsona elkartu dira Irungo San Juan plazan arratsaldeko 19:00etan egindako elkarretaratzean. Bidasoa ibaiaren uretan hildako azken migratzailearen heriotza salatzeaz gainera, udaletxearen plazan

> **“Euskal gizartea harrera-gizarte solidarioa da, eta horrela izan behar dute gure erakundeek ezarritako politikek”**
>
> Irungo Harrera Sarea

bildutakoek berriro ere zirkulazio askatasuna eta bide seguruak eskatu eta inor ilegala ez dela aldarrikatu zuten Bidasoa eskualdean migratzaileek bizi duten egoeraren aurrean. San Juan plazako kontzentrazioaren ostean Irungo Harrera Sareak elkarretaratzean parte hartu zuten pertsonei eskerrak eman dizkie, zehazki, “eskubide guztiak guztiontzat izan behar direla pentsatzen duzuen guztioi” eskerrak eman zizkieten. Elkarretaratzearen amaieran minutu bateko isilunea gorde zen Abdoulaye Colibalyren oroimenez.

Dagoeneko hiru pertsona hil dira Bidasoa ibaian hilabete gutxiren buruan. Irungo Harrera Sareak azaldu duenez estatuek eta Europar Batasunak ez dute errespetatzen migratzaileek eta errefuxiatuek zirkulazio librerako eta bide seguruetarako duten eskubidea.

Izen-abizenak dituzten ezbeharrak
Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak abuztuaren 10ean Bidasoa ibaian hildako azken migratzailea identifikatzea lortu zuen. Hildakoa Abdulaye Coulibaly izeneko 18 urteko gaztea da eta Frantziara iristen ahalegindu zen bertan bizi den osaba batekin elkartzeko. Jatorriz Ginea Konakrykoa, patera batean iritsi zen Kanaria Handia uhartera maiatzaren 23an beste 65 migratzaileekin. Ostean, Granollerseko Gurutze Gorriaren zentro batera eraman zuten eta bertatik modu boluntarioan irten zen. Abuztuaren 5ean iritsi zen Irunera eta Hilanderaseko aterpean hiru egun eman zituen muga ibaitik zeharkatzen saiatu aurretik.

Irungo Harrera Sarea Abdoulaye Coulibalyren gorpua Konakryra aberriratzeko dirua biltzen hasi da, Abdoulayeren aitak eta anaia-arreba gazteagoek bere gorpua etxera itzultzeko nahia adierazi ostean. Irungo sareak enbaxadak bere egitekoa betetzea espero du. Hala bada eta gorpua aberriratzen bada, ordura arte bildutako dirua Abdoulayeren familiari laguntzeko erabiliko da.

Instituzioak erantzule
Migratzailearen heriotza ezagutu bezain laster, gertakariaren egunean bertan José Antonio Santano Irungo alkateak bere tristura agertu zuen gertatutakoaren aurrean. Hurrengo egunean, Irungo Udalak adierazpen instituzionala argitaratu zuen udalbatzaren “tristura eta samina” agertzeaz gainera, udala hildako gaztearen senideei eta lagunei ahal duen guztian laguntzeko prest dagoela adierazteko. Era berean, testuan irakur zitekeenez, “salatu egin nahi da Europak ez duela migrazio-politikarik giza drama hori saihesteko, eta azkenean, egoera etsigarriak eraginda, askok bizia arriskuan jarri eta galdu egiten dutela”. Adierazpenaren amaieran udaletxeko balkoian krespoi beltza jartzearekin batera, hiritarrak arratsalde horretan bertan egitekoa zen elkarretaratzean parte hartzera animatu zituen.

Irungo Harrera Sareak sare sozialen bitartez zabaldutako komunikatuan eskatu du Bidasoa ibaian hildako azken pertsonaren kasua ez dadila gertaera isolatu eta ustekabekotzat hartu. Heriotzak migratzaile eta errefuxiatuek Europar Batasunak eta estatukideek aplikatutako migrazio eta kontrol politika arrazisten ondorio zuzena direla salatu dute, neurri horiekin migratzaileak “bide hilgarriak” hartzera bultzatzen baitituzte. Era horretan, Irungo Harrera Saretik Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Irungo Udalak osatutako Harrera-mahaiari ahaleginak areagotzeko eta harrera duina aplika dezatela eskatu diete, “jasaten dituzten tratu txarrak eta arrazismo instituzionala normalizatu beharrean”. Sare sozialen bitartez Irungo Harrera Saretik adierazi dutenez, “euskal gizartea harrera-gizarte solidarioa da, eta horrela izan behar dute gure erakundeek ezarritako politikek”. Horrela, tokiko-erakundeei migrazioaren gaian erreferente izango diren politika eta ekintzak garatzeko erronka egin diete.

Folk musika Bidasoa eskualdeko eszenatokietara itzuliko da abuztuaren 20tik 22ra

Irun, Hondarribia eta Hendaiako udalek, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren bidez, Bidasoa Folk jaialdiaren XX. edizioa antolatu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzarekin. Iazko udan ekitaldia bertan behera utzi ondoren, jaialdiaren antolatzaileek aurten ekitaldia modu seguruan egin dadin lan egin dute, betiere osasun arloko jarraibideak eta neurriak errespetatuz.

Horrela, abuztuaren 20an, 21ean eta 22an, Hondarribian, Irunen eta Hendaian, hurrenez hurren, sei kontzertu egingo dira Folk eta musika garaikidearen munduan erreferentzia diren taldeekin. Bidasoa Folk jaialdiaren XX. edizioan Murtzia, Gaztela-Leon, Bartzelona, Andaluzia, Okzitania, Portugal eta, nola ez, Euskal Herritik etorritako musikariek parte hartuko dute.

Irungo Udalaren izenean, Miguel Ángel Páezek nabarmendu duenez, "2020an ekitaldia bertan behera utzi ondoren, aurten inoiz baino gogo handiagoz gabiltza. Segurtasun neurri guztiak errespetatuz, jaialdi hau berriro antolatzea kalitatezko musikaren eta kultur aberastasunaren aldeko apustu sendoa da, betiere ekitaldiaren mugaz gaindiko izaera ardatz hartuta".

Kalitatezko programa

Bidasoa Folk Jaialdiak kalitatezko programa izan du beti, ospe handiko musikariekin. Besteak beste, guren izan dira Paco Ibañez, Kepa Junquera, Carlos Nuñez, Ruper Ordorika, Manuel Luna, Mikel Urdangarin, Mª Mar Bonet, Macka B & The Roots Ragga Band, Mayra Andrade, Joao Alfonso, Katia Guerreiro, Quimi Portet, Kalakan, Pedro Guerra, Carla Pires edo Sharon Shannon. XX. edizioa Hondarribian hasiko da abuztuaren 20an, Irunera jauzi egingo du abuztuaren 21ean eta azken kontzertuak Hendaian egingo dira abuztuaren 22an. Irunen egingo diren emanaldiei dagokienez, abuztuaren 21ean Juan José Roblesek emango dio Bidasoa Folk jaialdiaren bigarren jardunaldiari hasiera. Kontzertua Junkal plazan izango da arratsaldeko 20:00etan. Robles Malvariche eta Mujeres taldeen sortzaileetako bat da, eta, bere ibilbidean zehar, beste talde batzuetan ere parte hartu du. Besteak beste, Paco Muñozen agurbiran (2017-2018) eta SIMFÒNIC Pep Botifarra & Pau Chaferren (2018) ere parte hartu du, baita 30 disko baino gehiagotan ere. Mandolina, lautea, bandurria edo gitarroa dira izen propioa duen proiektu bat sortu duen musikari murtziar honen nortasun bereizgarrietako batzuk.

21:00etan, berriz, Alba Carmonak abestuko du. Musika herrikoiaren eta musika modernoaren artean urteetan zehar mugitu den sustraiko musikaren aztertzailea da. Hainbat artistarekin aritu da, hala nola Perico Sambeat, Carlos Saura, Chano Dominguez, Las Migas edo Mauricio

Sotelo. Musikan 18 urtean zehar izandako esperientziek, denboraren joanak eta ama izan berriaren emozioek eragin dute lehen aldiz bere ahotsarekin adierazteko beharra eta ia erabat berak konposatutako lehen diskoa osatzen duten bederatzi abestiri forma ematea.

Irungo kontzertuek aurreko egunean Hondarribiko Kasino Zaharreko lorategian egindako kontzertuei hartuko diete lekukoa. Izan ere, Euskal Barrokensemble taldeak eta La Musgaña & Vanela Muela taldeen emanaldiekin hasiko da jaialdia hirira iritsi aurretik. Abuztuaren 22an, berriz, Bidasoa Folken XX. edizioari Hendaiako Gaztelu Zahar frontoian merezi duen itxiera emateko ardura izango dute Lambrusquera eta Cocanha taldeek.

Segurtasun neurriak eta sarrerak

Kontzertu guztiak segurtasun neurriak errespetatuz eginen dira beti. Hala, Hondarribian gehieneko edukiera 200 pertsonakoa izango da, Irunen 300ekoa eta Hendaian 400ekoa. Sarrerak kontzertu bakoitza hasi baino ordu erdi lehenago hartu ahalko dira gune bakoitzaren sarreran. Tiket zenbakituak emango dira eta jendea banan-banan eseriko da segurtasun tarteak errespetatzeko.

Bidasoa Folk-en espiritua

2001ean sortua, proiektu honen jatorrizko asmoa folk musikako mugaz gaindiko jaialdia antolatzea zen, Hondarribia, Irun eta Hendaiako udalekin lankidetzan, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren bidez.

Udal-lankidetza horri esker, kalitatezko folk musikaren jaialdia aurkezteko ahalegin guztiak bateratu ahal izan dira, doako kontzertuen bidez, askotariko ikusleak erakartzeko: Bidasoako herritarrak eta bisitariak, gazteak eta ez hain gazteak, zaleak...

Jaialdi honi esker, Bidasoa Txingudi eskualdeak kulturaren eta turismoaren arloan interes berezia sortzen du, eta, aldi berean, hainbat herrialdetako musika eta tradizioak balioesten dira. Gainera, jaialdi honen kultura- eta musika-aniztasunak Bidasoa-Txingudiko kultura-aniztasuna nabarmentzeko aukera ematen du.

"Segurtasun neurri guztiak errespetatuz, jaialdi hau berriro antolatzea kalitatezko musikaren eta kultur aberastasunaren aldeko apustu sendoa da"

Miguel Ángel Páez,
Irungo Udalaren izenean

Udara: Irun hobeto ezagutzeko aukera aparta

Irungo Udalak aurtengo udaz hirian gozatzeko eskaintza turistikoaren edizio berri bat prestatu du. Aurtengo programak 2019. urteko proposamenak berreskuratu ditu, izan ere, pandemiak goitik behera baldintzatu zituen aurreko urtean egindako ekintzak. Horrela, uda hasieran Irungo inguruneaz gozatzeko proposatutako ekintzak aurkeztu ziren, historia, natura, merkataritza eta gastronomiaren arloko proposamenak uztartuz.

Miguel Ángel Páez, Bidasoa Bizirik-eko presidenteak eta Irungo Udaleko lehen alkateordeak, azpimarratu duenez, "Irunek proposamen-sorta zabala du etxetik mugitu gabe udako planak egiteko". Lehen alkateordeak azaldu duenez, aurreko urteetako udako ekintzak berreskuratzeak pixkanaka normaltasuna berreskuratzeko aukera ematen du eta, aukera hori aprobetxatuz, Iruni buruzko gauza gehiago jakiteko interesa duten pertsonei ekintzak egiteko aukera eskaini nahi izan diete. Miguel Ángel Páezek Irun udan gelditzen ez den hiri bat dela gogorarazteaz gainera, zera gaineratu du, "bai bisitatzen gaituztenok eta bai hirian oporrak igarotzen dituzten irundarrek aitzakia ezin hobea dute ongi pasatzeko gure kulturaren, naturaren eta merkataritza eta ostalaritzaren sektore garrantzitsuen eskutik".

Bisita gidatuak

Aurreko hiru urteetako esperientzia onak errepikatzeko nahiarekin, hirian bisita gidatuak antolatzeko ekimena berreskuratu da. Izan ere, bisitek uda bakoitzean bataz beste ehun bat bisitari erakarri ohi izan dituzte. Horregatik, uztailaren 14tik abuztuaren 27ra, asteazkeneko 11:00etan eta, ostiralero, 17:00etan Irun ezagutzeko bisita gidatuak egingo dira. Bisitaldiak Junkaleko elizatik abiatuko dira eta ibilaldian parrokia, Oiassoko erromatar ingurua, Urdanibia plaza, Ama Xantalen eta Udaletxea bisitatuko dira. Ekintzak bi orduko iraupena izango du eta prezioa 2 eurokoa da pertsona bakoitzeko, 12 urtetik beherako haurren parte-hartzea doakoa izango den bitartean. Bisitaldi gidatuei buruzko informazio gehiago eskuratu edo izen emateak egiteko 943 020 732 telefono-zenbakira deitu edo www.bidasoaturismo.com helbidearen bitartez antolatzaileekin harremanetan jarri beharko dute interesdunek.

Juncal Eizaguirrek, Hiri-Bultzada eta Kulturako ordezkariak 2021eko udararako antolatu diren egitasmoak horrela baloratu ditu: "Irunek turismo aldetik erakargarritasun handia du ondare historiko-kulturalari esker, eta gaur egungo egoerari egokitutako oso agenda kultural indartsua gehituta, Dies Oiassonis erromatar jaialdia bezalako ekitaldiekin, uda garaian Irun plan ona bihurtzen da".

Bisita gidatuen atala osatzeko, beste proposamen ezagunago batzuk berreskuratuko dira aurtengo udan zehar. Adibidez, Oiasso Erromatar museoak udako igandeetan goizeko 11:00etan ohiko irteerak programatuko ditu museotik bertatik, Ama Xantalen nekropolia ezagutzeko, hirian zehar egingo den tour bat barne. Irteera horrek hiriaren iragan erromatarrarekin zerikusia duten aurkikuntzak ezagutzeko aukera eskainiko du. Prezioei dagokienez, 14 urtetik gorako pertsonek 5,50 euro ordaindu beharko dituzte, 6 eta 14 urte bitartekoek 3,85 euro eta 6 urtetik beherakoek doan parte hartu ahal izango dute.

Era berean, Irugurutzetako meatzeen historia ezagutu nahi dutenek museoa aztarnategi horrekin lotzen duen tren berdearen txangoetarako izena eman ahal izango dute. Kasu honetan, uztailean eta abuztuan, irteerak ostiral eta larunbatetan egingo dira, 11:00etan eta 17:00etan. Prezioak, berriz, erromatar tourraren berberak izango dira: 5,50 euro pertsona heldu bakoitzeko, 6 eta 14 urte artekoentzat 3,85 euro eta 6 urtetik beherakoentzat doan izango da. Bisita 'IrunBerdea-Irugurutzeta' mugikorreko aplikazioarekin osatu daiteke. Ama Xantalen eta Irugurutzeta bisitatzeko erreserbak Oiasso Erromatar Museoaren bitartez egin beharko dira 943 639 353 telefono-zenbakira deituta.

Irun Berdea

Udako proposamenen zerrenda Lapurriturriko informazio gunearekin osatzen da. Lapurriturrik 10 urtetik gora darama bisitari guztiei parkea ezagutarazten eta, horretarako, eskaintza erakargarriagoa izan dadin, hainbat jarduera egiten dira denboraldi osoan zehar. Udaberrian, udan eta udazken hasieran jarduerak programatzeaz gainera, informazioguneak berak informazioa ematen die bisitari guztiei, paperean, eta parke naturalari buruzko azalpenak ere ematen dizkie, ibilbideei eta inguruko turismo eskaintzari buruz. Horrez gainera, informazio hau ere ematen dute. Lapurriturrik hainbat jarduera antolatzen ditu aldizka, hango flora eta fauna ezagutzera emateko. Informaziogunean arretarako ordutegia ondorengoa da: ekainetik urrira arteko asteburuetan eta uztail eta abuztuko jaiegunetan goizeko 10:00etatik 14:00etara.

Borja Olazabal Garapen Jasangarriko ordezkariak azaldu duenez hondartza eta mendia etxetik gertu izateak nolako pribilegioa suposatzen duen errepikatzen jarraituko dute udaletik. "Irun berdea, Aiako Harriko parke naturala edo Plaiaundiko parke ekologikoa bezalako lekuak dituelarik, hiriaren aurkezpengutunaren parte da eta uda momentu ezin hobea da haiek deskubritzen jarraitzeko" gaineratu du Borja Olazabalek.

Baliabide turistikoak

Aurtengo udarako hiru hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez) argitaratu den liburuxkan jasota dator hirira, Ama Xantalen baselizara eta Irugurutzetara tren berdean bisita gidatuak egiteko informazio guztia. Liburuxka Irungo interes-tokietan eskuratu ahal izango da, esaterako, Luis Marianoko turismo-bulegoan.

Triptiko hori osatzeko, beste turismo-baliabide garrantzitsuei buruzko informazioa ere ematen da, hala nola Txingudi Ekoetxeari buruz. Plaiaundiko parke ekologikoaren sarreran kokatuta dago zentroa, eta bisitariek informazio mota oro aurkituko dute bertan, bai Plaiaundiri buruz bai badiari eta Txingudiko Plan Berezian sartutako natur guneei buruz. Txingudiko Ekoetxeak egunero zabaltzen ditu ateak, 10:00etatik 14:00etara, goizez, eta 16:00etatik 19:00etara, arratsaldez. Triptiko honekin batera datorren beste baliabideetako bat iaz jarri ziren zazpi panel informatiboek osatutakoa da; hiriaren historiari buruzko azalpenak ematen dituzte eta Bidasoa ibaiaren ertzetik ibiltzeko gonbidapena egiten dute. Jardueren eskaintza hauei buruzko argibide gehiago, eta hiriko baliabide turistikoen xehetasun gehiago udalaren webgunean kontsultatu daiteke, www.irun.org helbidean.

Igor Emery, Real Union klubeko presidentea:

"Ilusioa da guretzat hitzik garrantzitsuena"

Real Unionentzat aro berri bat hasi da uztailean gauzatu zen klubaren zuzendaritza batzordearen aldaketarekin. Horrela, futbol-talde irundarra Emery familiaren eskuetan egongo da aurrerantzean. Igor Emery Real Union klubeko presidente berriak hastear dagoen denboraldirako eta etorkizunera begira klub irundarrarentzat dauzkan ilusio, asmo eta ideiak aurreratu ditu.

Zergatik erabaki zenuen proiektu honetan murgiltzea?
Familiaren erabakia izan zen. Real Union taldeari laguntzeko asmoa aspalditik dator. Gure familiak urte luzez izan du Real Unionekiko lotura eta beti gure familiako kluba dela sentitu dugu, hau da, etxeko kluba. Klubak laguntza apur bat behar zuela jakinda, azkenean, urratsa egin genuen eta orain hementxe gaude.

Zuzendaritza batzorde berriarekin Real Union klubarentzat aro berri bat hasi da?
Bai. Klubeko langileak mantendu ditugu, hortaz, aurretik zeuden pertsonek klubarentzako lan egiten jarraituko dute eta, gainera, gu pozik gaude beraiekin. Hortik aurrera, egia da batzordea osatzen duten pertsonak aldatu direla. Kontseilari guztiak berriak dira eta, horretarako, Irungo eta bailarako jendea bilatu dugu. Irungo klub indartsu bat bultzatu nahi dugu, baina bailara guztiarentzat. Hau da, kideek sentimendu txuri beltza dute. Nahiko argi genuen nolako profila nahi genuen eta beraiengan aurkitu dugu.

Zuen proiektua ilusio hitzarekin laburbildu daitekeela esango zenuke?
Ilusioa da guretzako hitzik garrantzitsuena. Azken urteetan Real Unionekiko sentimendu apalagoa zegoela

"Irungo klub indartsu bat bultzatu nahi dugu, baina bailara guztiarentzat"

"Aurten albistea ez da belar gainean egongo, harmailetan egongo da gehienbat"

ikusi da eta hori berpiztu beharra dago. Lehen taldea maila berri, garrantzitsu eta erakargarri batean dagoela jakinda, ez dugu ahaztu behar harrobia ere landu behar dugula. Irungo eskoletatik hasita, beheko mailetan beste modu batean lan egin behar dugula uste dut, indarra emanez eta gure ilusioa maila horietara eramateko. Lehentasunak lehen taldean eta harrobian daude, klubaren iraunkortasuna harrobian baitago.

Irungo zein inguruko herrietako gainontzeko kirol taldeekin biltzen hasi zarete, zertarako?
Real Unionen harrobia ez dira bakarrik etxean ditugun taldeak, bailarako harrobiak inguruan dauzkagun klubez osatuta egon behar du. Irunen Landetxa, Mariño, Behobia, San Marcial eta Dunboa taldeak dauzkagu eta Hondarribian ere beste kirol talde on bat dugu, Ipar Euskal Herria, Bera eta Lesaka ahaztu gabe. Beraiekin harremanak berreskuratu nahi ditugu, gure harremana normaltasunera itzultzeko.

Gainera, zelai erantsiaren itxura aldatzeko lanak hasi dira?
Irungo Udalari zein Gipuzkoako Foru Aldundiari eskerrak eman behar dizkiogu beheko zelaia aldatzeko egin duten ahaleginarengatik. Zelai hori, lehen taldeak erabiltzeaz gainera, talde guztientzat ere izango da, bertatik igaroko baitira harrobiko talde guztiak. Lanek bi hilabete iraungo dute. Kluba indartzeko zelai hori indartzea eta berritzea beharrezkoa zela uste genuen.

Jada 2021/2022 denboraldiko taldeen aurkezpena egin duzue. Klubeko taldeak denboraldiko erronkei aurre egiteko prest ikusten dituzu?
Ilusio handia dutela uste dut. Lehen taldeak epe laburreko lana eskatzen du, baina gure beste lehentasuna harrobia da. Ilusio handia ematen digu harrobia lantzeak, ume eta gazte horiek guztiek beraiekin gaudela senti dezaten. Beraz, hori lotzen saiatuko gara. Ilusio hori sentitzen dugu eta guk urratsak egin beharko ditugu gure babesa sentitu dezaten.

Lehen taldeak erronka garrantzitsua du denboraldi honetarako?
Zentzu horretan, nahiko lasai gaude, aurreko denboraldian ikusi ahal izan genuenez taldeak goi mailako futbola jokatu zuen hemen eta emaitzak oso onak izan ziren. Oso ondo hasi ziren lanean iazko aurre-denboraldian, lan handia egin zuten urte guztian zehar eta emaitzak iritsi ziren. Lorpen garrantzitsuena da aurten taldea lehen maila horretan egongo dela ikustea. Liga gogorra izango da eta beste taldeek ahalegin berezia eskatuko digute. Klubarentzat zein zaleentzat oso denboraldi polita izango da.

Zaletuak harmailetara itzultzea pizgarri bat izango da klubarentzat?
Aurkezpen eguneko ekitaldian aipatu genuenez eta Racing taldearen aurkako partiduan ikusi genuenez, aurten albistea ez da belar gainean egongo, harmailetan egongo da gehienbat. Berriro zaletuak harmailetara ikusiko ditugu, taldearekin batera gozatzen eta Stadium Galaz disfrutatzen. Racingaren aurkako partidua polita izan zen, gol politak ikusi genituen eta zaletuekin batera ospatu ahal izan genituen.

Zeintzuk izango dira datozen aste eta hilabeteetan klubarekin loturik zaletuek atzemango dituzten lehen aldaketak?
Dagoeneko lanean hasi gara, klubean aurpegi berriak daude eta Real Union eguneratzeko jo eta ke ari gara lanean. Izan ere, gauza asko eguneratu behar dira. Hemendik hilabete batzuetara aurrean ikusten dugun zelai honek beste itxura bat izatea espero dut.

Julen Aginagaldek eskubaloi selekzioarekin batera brontzezko domina lortu du Tokion

Eskubaloi jokalariaz gainera, Teresa Errandonea eta Ander Elosegi kirolari irundarrak ere lehiatu ziren olinpiar hitzorduan

Julen Aginagaldek Espainiako eskubaloi selekzioarekin batera brontzezko domina lortu du Tokioko Olinpiar Jokoetan. Bidasoa taldeko jokalariaren lorpenak Olinpiar Jokoei amaiera gorena eman dien arren, Aginagalde ez da izan 2020ko Tokioko olinpiadetan parte hartu duen Irungo kirolari bakarra. Izan ere, dominarik lortu ez arren, Ander Elosegik bere laugarren diploma olinpikoarekin itzuli da etxera eta Teresa Errandonea maila goreneko txapelketan estreinatu da.

2020ko Olinpiar Jokoak bereziak izan dira txapelketaren hasieratik, izan ere, Covid-19aren pandemiak jokoak urtebete geroago egitea eragin du. Azken asteetan zehar Tokion Olinpiar Jokoek zapore gazi-gozoa utzi dute Irungo kirolarien ahoetan. Julen Agindalgaldek txapelketaren zapore gozoena dastatu du Espainiako eskubaloi selekzioarekin batera brontzezko domina eskuratu baitu. Aginagaldek eta bere taldekideek domina lortu dute txapelketako azken partidan egiptoarrak 31-35 puntuko markagailuarekin menderatu ostean.

Olinpiadetan Julen Aginagalde Bidasoa taldeko prestatzailea izandako Jordi Riberaren aginduetara egon da. Guztira, Julenek lau partida jokatu ditu Tokion. Horrela, irundarrak bere bigarren ibilbide olinpikoa osatu du, 2012ko Londreseko Olinpiar Jokoetan jokatu ondoren. Jokalari irundarrak Frantziaren aurkako multzoen faseko laugarren jardunaldian hiru gol sartu zituen eta Argentinaren aurkako partiduan, berriz, lau gol. Final-zortzirenetan Suediako taldearen aurka indarrak neurtu zituen eta Egiptoren aurkako partiduan Aginagaldek 2020ko olinpiadetako bere azken bi golak oparitu zituen.

Brontzezko dominarekin Bidasoaren harrobiko jokalariak Espainiako eskubaloi selekzioarekin beste lorpen bat gehitu du aurrekoen zerrendara. Julen Aginagalde 2006an estreinatu zen Espainiako Selekzioan eta bertan orain arte jokatutako 205 partidatan 504 tanto lortu ditu. Gainera, 2013ko Munduko Txapelketa, 2018ko Europako Txapelketa eta 2020ko Europako Txapelketa irabazi ditu, eta 2016ko Europako Txapelketan zilarrezko domina eta 2014koan brontzezko domina eskuratu zituen. 2012an Londreseko Olinpiar Jokoak jokatu zituen, eta Espainiako selekzioak zazpigarren amaitu zuen Aginagalde lehiaketako pibotik onena izendatu zuten txapelketan. Rio de Janeiroko Jokoetan Espainiako eskubaloi selekzioak kale egin ostean, Tokion hurbil ibili dira munduko txapelketaren gailurretik.

Domina lepotik zintzilik zuela, hauxe adierazi zuen Julen Aginagaldek: "ez dago bide hau amaitzeko modu hoberik. Eskerrik asko amets hau horrela amaitu dadin lagundu duzuen guztioi".

Diploma olinpikoa Ander Elosegirentzat
Ander Elosegui bere laugarren diploma olinpikoarekin itzuli da Tokiotik, ur lasterretako sailkapen finalean zortzigarren postua lortu ostean. Domina eskuratzeko ametsa urrun geratu den arren, finaleko jaitsiera 106.59 segundotan egiteak saria izan du Elosegirentzat, diploma olinpikoa eskuratu baitu. Irundarrak 2016an Rio de Janeiron lortutako zortzigarren postua errepikatu du bere azken lorpenarekin.

Ander Elosegi Tokioko Olinpiar Jokoetako piraguismoko eslalom C-1 modalitateko finalerako sailkatu zen, finalerdietan hirugarren denborarik onena egin ondoren. Aurretik, irundarra zazpigarren erregistro onenarekin sartu zen finalerdietan. Finalaren aurretik lortutako markek Ander Elosegi podiumera hurbiltzen zutela iruditu arren, azkenean piraguista irundarrak ez zuen dominarik lortu.

Finaleko jaitsieran piraguista irundarra oso azkar eta gogotsu atera zen bere lehen domina olinpikoa zintzilikatzeko nahiak bultzatuta. Tokioko jaitsiera garrantzitsuena, ordea, ez zen Anderrek nahiko zukeen bezain garbia izan jaitsierako lehen ateetako bat ukitu ostean. Dena den, Santiagotarrak klubeko kirolariak bere izena laugarren urtez munduko piraguismoko eslalomeko kirolari onenen zerrendan sartzea lortu du. Izan ere, Tokioko Olinpiar Jokoetan parte hartu aurretik, Elosegik Pekin, Londres eta Rio de Janeiron egindako txapelketa olinpikoetan hartu zuen parte.

Ander Elosegiz gainera, Tokioko Olinpiar Jokoetan piraguismoarekin lotura duten beste irundar batzuk izan dira. Izan ere, Tokion izan dira Xabi Taberna Espainiako piraguismo federazioko entrenatzailea, Telmo Olazabal Holandako slalomeko entrenatzailea eta Iñaki Gomez Esloveniako Slalomeko entrenatzailea. Finaleko emaitza ezagutu ostean, Ander Elosegik sare sozialetan Tokion bildutako irundarren argazkia partekatu zuen hitz hauekin batera: "Bukatu dira niretzako joko olinpikoak. Momentu onak izan dira, hau horietako bat: Bertan bildu garen irundarron argazkia". Era berean, piraguistak zorte ona opa zien lehiaketan parte hartu duten gainontzeko irundar kirolariei.

Teresa Errandonea lehenengoz Olinpiadetan
Bestetik, Teresa Errandoneak bere lehen Olinpiar Jokoetan parte hartu du. Atleta irundarrak uztailaren 31ko goizaldean bete zuen bere ametsa. Errandoneari finalerdietako kanporaketen laugarren txandan lehiatzea egokitu zitzaion. Finalerdietarako txartela lortzea zaila zirudien arren, ez zen guztiz ezinezkoa.

Ohikoa denez, Teresak irteera bikaina egin zuen, eta txandako faboritoen artean egon zen lasterketaren lehen metroetan. Azkenean Errandoneak lasterketa seigarren postuan amaitu zuen, 13,15 segundoren ostean iritsi baitzen helmugara. Teresa Errandoneak gaur-gaurkoz bere marka pertsonal onena 13,04 segundotan duela gogorarazi behar dugu. Lortu zuen erregistro horrek irundarra finalerdiak jokatzeko aukerarik gabe utzi zuen. Tokioko Olinpiar Jokoetan Errandonearen parte-hartzea laburra izan bada ere, bere lehen lorpena eskuratzeko balio izan dio: Bidasoa Altetiko Taldearen barnean Joko Olinpikoetan parte hartu duen lehen atleta izatea.

Behin ametsa amaituta, bere sare sozialetan partekatutako argazkian Teresa Errandoneak onartu du, amorrua sentitu arren, ez duela amorruak denboraldian lortutakoa lainotzea nahi. Lasterketa guztietan lortutako erregulartasunaz harro agertu da eta aurtengo entrenamenduetan lortutako oinarriak datorren denboraldirako baliagarriak izango zaizkiola espero du.

2021. urtean jokatutako Olinpiar Jokoen laburpen honek agerian utzi du berriro ere irundarrak gai direla kirol modalitate ezberdinetan elite mailako txapelketetan daukaten onena emateko. 2024an egoitza olinpikoa etxetik hurbilago egongo da kirolari irundarrentzako. Parisek beste aukera bat emango die domina lortzeko borrokari eusteko prest dauden kirolariei.

Oiasso eta Isis jainkosa egiptoarra

Pasa den hilabetean Dies Oiassonis erromatar jaialdia ospatu zen Irunen. Jende ugari gerturatu zen Junkal plazan Oiasso Museoak antolaturiko antzerki emanaldietara eta ez ziren gutxi izan gurekin afaltzera animatu zirenak Felix Manso eta Iñigo Lavadoren jatetxeetara.

Lehendabizikoarenean Ameriketako produktuen bitartez osaturiko menua dastatzeko aukera izan genuen. Bigarrenarenean, aldiz, erromatar garaiko errezeta eta elikagaiak berreskuratuz diseinaturiko plater sorta batez gozatu ahal izan zen. Jaialdiarekiko egin dugun balorazioa positiboa den arren, kontziente gara Dies Oiassonis-en aurtengo edizioak beste urte batzuetakoak baino izaera xumeagoa izan duela Covid-19aren aurka hartu beharreko osasun neurrien ondorioz. Esaterako, iaz bezala, aurten ere bertan behera utzi behar izan da jaialdiko jarduera garrantzitsuenetako bat: Isis jainkosaren itsasontziaren prozesioa edo Navigium Isidis festa, irundarren partaidetzarekin aurrera eramana. Ekarpen idatzi honetan, erromatar garaiko ospakizun honen inguruan arituko gara.

Erromatarrak betidanik hagitz jasanberak izan ziren konkistatzen zituzten herrien jainkoekiko, beti ere gurtza atzerritar haiek jainko erromatarrak errespetatu eta onartzen bazituzten. Egoera haietan gauzatzen zen elkartruke erlijiosoak aberastasun kulturala zekarren eta aldi berean herri ezberdinak inperioan sozialki egokitu zitezen errazten zuen. Navigium Isidis jaia integrazio honen adibidea da. Isis jainkosa egiptoarrarekiko gurtza zabaldua zegoen erromatarren artean K.a. I. menderako, indar handiagoa hartuz K.a. 30. urtean Oktavioren gudarosteek Egiptoko erreinua konkistatzean. Hamarkada batzuk geroago zenbait enperadorek, Kaligula tartean, bultzada galanta eman zioten aipaturiko jainkosaren gurtzari.

Egutegi erromatarrean jainkosa egiptoar honen jaiegun nagusia aipaturiko Navigium Isidis deritzona zen, martxoaren 5ean ospatzen zena. Data horretan Erromatik Ostiako porturaino prozesio bat egiten zen Isisen zilarrezko estatua bat garraiatuz. Helmugara iritsita, bertan zain zegoen fededunen eskaintzez beteriko ontzia itsasoan askatzen zen. Garaiko idatzi erromatarren arabera, itsas nabigazioa ez zen gomendagarria urteko zenbait hilabetetan, hortaz, azaro aldera ixten zen nabigazio sasoia -mare clausum-, otsaila-martxoa aldean atzera bueltan zabaltzeko -mare apertum-. Horrela, aipaturiko Navigium Isidis zeremoniak itsasoan ez nabigatzearen gomendioaren amaiera hurbila aditzera ematea zuen helburu, marinelei eta itsasoratu behar zuen bidaiari ororen babesa ematea ere bilatzen zuelarik. Fededunek ere Isisen babesean aringarri bat bilatzen zuten bizitzako gorabeheretan zehar arriskurik pairatu gabe "nabigatzeko". Ordea, gure artean erromatarrak eta itsasoa aipatzean burura lehendabizi etortzen zaiguna Neptuno da, hezetasunaren eta uraren jainkoa. Isisen antzera, Neptunok ere arrakasta handia zuen marinelen artean. Jainko honen omenez eginiko jairik garrantzitsuena Neptunalia delakoa zen, uztailaren 23an ospatzen zena, jarduera nagusia zezen baten sakrifizioa izanik.

Iturri falta dela eta, ezin dugu ziurtzat eman Antzinaroko Oiasso erromatarrean itsasoarekin loturiko Neptuno eta Isisen omenezko zeremonia erlijiosorik egiten zenik. Dena den, kontuan izan behar dugu Oiassoko itsas portua, Irungo Santiago eta Tadeo Murgia kaleetan topaturikoa, puntu garrantzitsu bat zela Kantauriko nabigazioan eta, ondorioz, txoko ezberdinetatik etorritako marinel eta bidaiarien elkargunea izanen zela. Laurogeiko hamarkadan, Higerreko Badian ur azpian agerturiko K.o. II-III. mende inguruko ontzi erromatar baten aztarnen artean, zenbait objektu topatu ziren, tartean Oiasso Museoan ikusgai dauden brontzezko lau jainko-jainkosen iruditxo: Minerva, Marte, Helios/Eguzkia eta Isis irudikatzen dituztenak hain zuzen. Kasu honetan jainkosa egiptoarrak koraza bat darama eta ezkerrerantz begira dago, burugaina ilgora dagoen ilargi batek apaindurik, ohikoa zen bezala. Momentuz Gipuzkoa mailan ez da jainkosa honen bestelako irudirik topatu, bai ordea Foruan. Udalerri bizkaitar horretako kobazulo batean dibinitate egiptoarraren aldaera bat aurkitu zen, "Isis Fortuna" deritzona, Bizkaiko Arkeologi Museoan dago ikusgai eta 2018an "Mulieres. Emakumeak Augusta Emeritan" behin behineko erakusketaren harira Oiasso Museoan izan genuen.

Heldu den urtera begira, beti ere osasun neurriek baimentzen badute, Dies Oiassonis jaialdia behar bezala ospatzea espero dugu, beste behin ere Isis jainkosaren prozesioaren bitartez Antzinaroko erromatarren Navigidum Isidis zeremonia gogoratuz. Bestela ere, ez ahantzi Oiasso Museoko ateak zabalik dituzuela.

Jokin Lanz

BELASKOENEA LH1

1GO MAILAKO IKASLEOK PRODUKTU EZBERDINEK DUTEN AZUKRE KANTITATEA AZTERTU DUGU

Belaskoenea eskolako lehengo mailako A eta B taldeko ikasleok, jaten ditugun produktuen ezberdinetan dagoen azukre kantitatea ikertu dugu. Produktu askok uste genuena baina azukre kantitate handiagoa dutela konturatu gara eta produktu hauek asko kontsumitzen ditugula jabetu gara.

Beraz, hemendik aurrera, gehiago zainduko dugu jaten duguna!!

ZAINDU ZURE ELIKADURA, OSASUNTSU HAZTEKO!!

Denbora-pasak

7 hitz: Hoteletako instalazioak

C	Y	J	E	A	D	B	C	W	N	F	T	L	G
V	N	L	D	Z	J	P	F	U	B	H	K	Q	I
R	Z	M	I	G	E	R	I	L	E	K	U	P	E
J	D	C	S	T	B	T	N	J	X	G	A	Z	N
J	O	S	A	H	X	F	X	S	L	K	H	J	P
A	B	S	V	C	U	B	P	N	S	D	R	I	A
T	F	S	O	B	L	R	F	O	Z	Q	N	O	R
E	T	A	B	E	R	N	A	C	F	B	Z	B	K
T	L	N	F	Q	X	W	O	L	P	V	J	Z	E
X	K	C	M	G	H	A	R	R	E	R	A	H	K
E	T	B	I	J	T	P	Y	F	T	Q	K	N	J
B	F	L	U	D	O	T	E	K	A	D	J	R	P
F	P	G	R	L	O	G	E	L	A	R	Y	A	R
C	B	X	L	T	F	A	J	L	Q	I	O	G	W

Harrera, igerileku, logela, jatetxe, taberna, parke, ludoteka.

			4		3	5	8	
			2		8	7		
	7	3			5		6	
	8	2		4				
3								
5			8				4	
7	2	5		3				
4		6				2		
	9		7		4	6	5	

EUSKARA IRUNEN BARRENA

Izen itsusiya dun neskazar izena

Izen itsusiya dun
neskazar izena,
aditu utsarekin
lotsatzen naizena.

Soñekorik onen
diñet bara jantzi,
gañera esku eta
sonbrilla ta guzti.

Oraingo mutill gaztiak
ainbeste malizi,
ni ikusi orduko
zigazten igesi.

Neska zar zar zar
denbora pasatu,
zergatik e´itzan bara
lenago ezkondu?

Neri iñork ez esan,
neonek eziñ esan,
orregatik gelditu
niñunen neskazar.

Neskalagunak edadekuak kantatzen genuen gaztiak giñenian.

S.R.A. andereari jasoa (1959-VIII-9). (El Bidasoa, 1959-IX-26)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

TXINGUDI IKASTOLA LH5-LH6

bideosare
-> Ikus-entzunezko proiektuak
-> Bideo grabaketa eta edizioa
-> Multimedia
Bideoak zure erara !
bideosare.com

Uxue Sansiñena, kontrabaxista:

"Txikitatik musika ama-hizkuntza izan da niretzat"

Uxue Sansiñena musikariak Dudamel fundazioak antolatutako musikarien Europako Topaketan parte hartu du. 12 nazionalitatetako musikariekin partekatu du agertokia egia bihurtutako amets honen barnean. Hala ere, aurretik musikari gazteen orkestretan izandako esperientzia oso baliagarria izan zaio erronka berri honi aurre egiteko. Kontrabaxistak azaldu duenez oso esperientzia aberasgarria izan da.

Musikarien familia batean jaio eta hazi zarela ikusita, erraza da musikarekin duzun lotura ulertzea?
Bai. Txikitatik musika ama-hizkuntza izan da niretzat, euskara edo gaztelania bezala. Nire familiari esker etengabe musikaz inguratuta egon naiz. Hitz egiten ikasi aurretik, musika entzuten ikasi nuela uste dut.

Instrumentua aukeratzeko unean, zergatik aukeratu zenuen kontrabaxua?
Ez neukan argi zer instrumentu aukeratu, denak gustatzen zitzaizkidalako. Egun batean, Irungo Kontserbatorioan kontrabaxua ikusi eta entzutean, maitemindu egin ninduen eta oso argi izan nuen aukeratutako instrumentua zela.

Noiz izan zenuen argi zure bizitza musikari eskaini nahi zeniola?
Kontrabaxua ikasten hasi nintzenetik konturatu nintzen gehien gustatzen zitzaidana zela eta musikatik bizi nahi nuela.

Orain arte zein da musika arloan jaso duzun prestakuntza?
Irungo Kontserbatorioan profesional maila egin nuen eta aurten Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan Goi Mailako gradua amaitu dut. Urte hauetan zehar hainbat orkestra gazteekin jo dut, hala nola JOL (Leonesa Gazte Orkestra), JMJ (Gazteen Mundu Jardunaldiko Orkestra), EIO (Euskadiko ikasleen Orkestra), EGO (Euskadiko Gazteen Orkestra), JONDE (Espainiako Gazte Orkestra Nazionala) eta Gustavo Dudamelek antolatutako Europako Topaketa. Gainera, orkestra profesionalekin ere jo izan dut, hala nola Sasibil, Euskdivarius orkestra, Ma non troppo orkestra, OCP (Iruñeko Orkestra), Opus Lírica, Gasteizko Udal Musika Banda eta OSN (Nafarroako Orkestra Sinfonikoa).

Nola sortu zen Gustavo Dudamelek antolatutako Europako Topaketetan parte hartzeko aukera?
Euskadiko Gazte Orkestraren bitartez bideo bat aurkeztu nion Dudamel Fundazioari sarbide-proba egiteko, eta onartua izatea lortu nuen horrela. Eskerrak eman behar dizkiot EGOri aukera hau emateagatik eta bereziki, Germán Ormazábal, Ruben Gimeno eta Auria Etxeandiari.

Nolakoa izan zen aukeraketa prozesua?
keztu nuen. Bideo horretan kontzertu libre baten mugimendu bat jo behar izan nuen, nire kasuan Sergei Koussevitzkyren kontrabaxurako kontzertua. Baita ere zenbait orkestrarako pasarteak aurkeztu nituen. Bideo hori, beste guztiekin batera, Gustavo Dudamelek eta bere taldeak ikusi zuten. Aukeratua izateko zortea izan nuen. Ezin nuen sinetsi, egia bihurtutako ametsa!

Aurretik bestelako orkestratan parte hartu izanak erronka berri honetan lagundu dizu?
Maila oso altua izan da, baina diozun bezala, beste gazteen orkestra batzuekin izan dudan esperientziak lagundu dit Dudameleko Orkestrarekin proiektu honi ondo aurre egiteko.

Nolakoa izan da Gustavo Dudamelen mailako zuzendari baten aginduetara lan egitea?
Harrigarria! Bere apaltasunetik hasita, lehen egunetik orkestrak betidanik elkar ezagutuko bagenu bezala jotzea lortuz, bere irakaspen guztiak transmititu dizkigun jakituriara arte. Adibidez, berarekin egindako lehen entsegu egunean hori gertatu zen, orkestra hasieratik entzun zen txundigarri, bizitza osoan elkarrekin jo izan bagenu bezala. Hori lortu zuen bere apaltasun eta energiarekin, hasieratik bibrazio onak transmitituz. Oso pertsona hurbila eta atsegina da. Zuzentzen hasten denean, harrigarria da orkestratik lor dezakeena.

Gustavo Dudamelez gainera, maila goreneko irakasleekin lan egiteko aukera izan duzu?
Bai, kontrabaxu-jotzaileok Christopher Hanulikekin lan egin dugu topaketan, Los Angeleseko Orkestra Filarmonikoko kontrabaxu-bakarlariarekin. Gainera, Simon Bolivar Orkestrako bakarlariekin eta Vienako Orkestra Filarmonikoko kontzertinoarekin ere lan egin ahal izan dugu. Luxu handia izan da irakasle horiekin guztiekin lan egin ahal izatea.

Beste herrialde batzuetako musikariekin esperientzia partekatzea aberasgarria izan da?
Oso aberasgarria izan da. 12 nazionalitateko musikariak ginen (Kolonbia, Venezuela, Peru, Uruguai, Argentina, Mexiko, Bolivia, Ameriketako Estatu Batuak, Nikaragua, Txile, Portugal eta Espainia) eta horrek aberastu egin nau, musikalki ez ezik, kulturalki ere. Primeran moldatu gara eta esperientzia handia izan da.

Non edo nola ikusten duzu zure burua etorkizunean musikari bezala?
Lehenengo Musikeneko masterra egin behar dut eta bukatzerakoan atzerrira ikastera joan nahi nuke musika ezagutzak zabaltzera. Orkestra handi batean jo nahiko nuke, mundu osoan zehar kontzertuak emanez. Kontserbatorio batean ere emango nituzke klaseak, irakaskuntza ere gustatzen zaidalako.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK
Félix Manso
IBARLA
Meaka auzoa, 9 – 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964
FELIX MANSO IBARLA JATETXEA
info@felixmanso.com
www.felixmanso.com

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

iGazte itxita

IGazte informazio bulegoa itxita egongo da abuztuaren 16tik 27ra.

Oporren amaieran elkar ikusiko dugu berriro!

Bidaia asegurua doan Gazte-txartelarekin

Gazte-txartelaren erabiltzaile guztiek doako bidaia-aseguruaz goza dezakete; horretarako, Gazte-txartela aktibatu besterik ez duzu egin behar.

Eremu geografikoa eta estaltzen dituenak
Mundu osorako balio du, ohiko etxebizitzatik 30 kilometrotik aurrera eta gehienez 105 eguneko bidaietan.

Gazte-txartelaren titularrentzako berariazko asistentzia telefonoak
Aseguru honen bermeetan sartzen diren zerbitzuak jaso ahal izateko, ezinbestekoa da aseguratuak horiek jaso nahi dituela adieraztea; horretarako, honako telefono honetara deitu behar du zerbait gertatzen zaion unean bertan (hartzaileak ordaintzeko deia egin dezake. 24 orduz etenik gabeko zerbitzua): +34 915 72 43 43

Asistentzia eskatzeko beharrezkoak diren datuak
Aseguratuaren izena.
Aseguratua dagoen lekua eta telefonoa.
Daukan arazoaren deskribapena.
Poliza zenbakia: 24977

Aseguruari buruzko informazio gehiago behar baduzu, jarri harremanetan posta elektronikoko helbide honetan: gaztetxartela@euskadi.eus

SoulFit. Gazte Trukea

SoulFit gazte truke bat da, eta sentsibilizazioa du helburu: bizimodu osasuntsua izatearen, aire zabaleko jardueretan aritu eta horrelakoez gozatzearen, kontzientzia ekologikoa garatzearen, bizimodu osasuntsua sustatzearen eta Europaren balioetan oinarritutako espiritu multikultural eta nazioartekoa sustatzearen onuren inguruan sentsibilizatzea.

Jarduerak: ibilaldiak, eskalada, mendi ibiliak, kayak irteerak, bizirik irauteko gaitasunak lantzeko jarduerak...

Data: irailaren 2tik 13ra

Tokia: Asturias eta Kantabria

Izena emateko epea: abuztuaren 23a

Ikastaroak

Ikastaroak:
- Merkataritzako Laguntzailea
- Produktu teknologikoen saltzailea

Hasiera: 2021eko irailean
Modalitatea: erdipresentziala (150 ordu)

Norentzat: Gazte Bermearen sisteman izena emanda dauden 16 eta 30 urte bitarteko gazteentzat.

Baldintzak:
- NAN edo AIZ (lan-baimena) eta ikasten edo lanean ari ez direnak.

- Prestakuntza on-line jarraitu ahal izateko oinarrizko gaitasun teknologikoak dituzten gazteak.

Informazio gehiago eta izena emateko: Irungo Gurutze Gorria - Euskal Herria hiribidea, 14 - 678 50 55 88 - naerto@cruzroja.es / 678 50 55 77 - raquel.delrio@cruzroja.es

Aisialdiko Zuzendari ikastaroa

Norentzat: Aisialdiko Hezitzaileak eta Dinamizatzaile Soziokulturalak.

Baldintzak:
- 21 urte beteta edukitzea (edo atal teorikoa amaitu aurretik beteak izatea) eta aisialdirako begirale titulua izatea.

- Eskola-graduatuaren jabe izatea.

Egunak: Urritik maiatzera, larunbatetan.

Ordua: 9:00etatik 15:00etara.

Lekua: Urtxintxa (Donostia).

Lan eskaintza: Kobratzaileak

Lan poltsa: Gazteen bila gabiltza kobratzaile moduan aritzeko.

Betebeharrak:
- Gutxieneko formakuntza Batxilergoa
- B1 gida baimena eta ibilgailua eskuragarri
- Euskarazko ahozko komunikazioan maila ona
- Irun, Hondarribi edo inguruko zonaldean bizitzea

Interesatuta bazaude: bidali zure curriculum vitae-a duela gutxiko argazkiarekin hautagaiak@bidelan.eus (Erreferentzia: Kobratzailea)

Zure prestutasuna mugatua bada, adibidez, udako oporretara edo/eta kurtsoan zehar asteburuetara mugatzen bada, bidaltzen diguzun curriculumean adierazi.



Abuztuak

19

Dantza

Zer: Emakumeak izeneko ikuskizuna NODE konpainiaren eskutik eta Uikan Dantza konpainiaren "Gizakia" ikuskizuna.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 20:00etan.

Oharra: Lehen ikuskizunak 18 minutuko iraupena izango du eta bigarrenak, aldiz, 20 minutukoa.

20

Zinema

Zer: Steven Wouterloodek zuzendutako "Tess eta ni" pelikularen emanaldia.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 22:00etan.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

21

Bisita gidatua

Zer: Bisita gidatua Ainara Oskozen "Denboraren haria" erakusketara.

Non: Menchu Gal aretoan.

Ordua: 19:00etan.

Aurre izen-ematea: cultura@irun.org posta elektronikora idatziz edo 943 50 54 08/07 telefono-zenbakira deituz.

Oharra: Bisita gidaturako taldea gehienez 10 pertsonek osatuko dute.

21

Bidasoa Folk

Zer: Murtziako Juan Jose Robles eta Bartzelonako Alba Carmonaren emanaldia**.**

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

27

Bisita gidatua hirian zehar

Zer: Bisita gidatuak Junkaleko elizatik aterako dira, eta parrokia, Oiassoko erromatar ingurua, Urdanibia plaza, Ama Xantalen eta udaletxea bisitatuko dira.

Ordua: 17:00etan.

Prezioa: 2 euro (12 urte arteko haurrak doan).

Iraupena: 2 ordu.

Oharra: Informazio gehiago eta izen ematea 943 020 732 telefonoan edo www.bidasoaturismo.com helbidean.

28

Kultura km0

Zer: Burrunba elektrotxarangaren emanaldia.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 20:00etan.

Denbora-pasen emaitzak

C	Y	J	E	A	D	B	C	W	N	F	T	L	G
V	N	L	D	Z	J	P	F	U	B	H	K	Q	I
R	Z	M	I	G	E	R	I	L	E	K	U	P	E
J	D	C	S	T	B	T	N	J	X	G	A	Z	N
J	O	S	A	H	X	F	X	S	L	K	H	J	P
A	B	S	V	C	U	B	P	N	S	D	R	I	A
T	F	S	O	B	L	R	F	O	Z	Q	N	O	R
E	T	A	B	E	R	N	A	C	F	B	Z	B	K
T	L	N	F	Q	X	W	O	L	P	V	J	Z	E
X	K	C	M	G	H	A	R	R	E	R	A	H	K
E	T	B	I	J	T	P	Y	F	T	O	K	N	J
B	F	L	U	D	O	T	E	K	A	D	J	R	P
F	P	G	R	L	O	G	E	L	A	R	Y	A	R
C	B	X	L	T	F	A	J	L	Q	I	O	G	W

2	6	1	4	7	3	5	8	9
9	5	4	2	6	8	7	3	1
8	7	3	9	1	5	4	6	2
6	8	2	3	4	1	9	7	5
3	4	9	6	5	7	1	2	8
5	1	7	8	9	2	3	4	6
7	2	5	1	3	6	8	9	4
4	3	6	5	8	9	2	1	7
1	9	8	7	2	4	6	5	3

HAMAIKA

www.hamaika.com

San Marcos Plaza 1,
Hondarribia

(+34) 943 64 64 12
hamaikalan@gmail.com